



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko apirilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2024ko martxoaren 29a

Afitxatze eguna : 2024ko martxoaren 29a

15. ERABAKIA: DENBORA EZ OSOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILE BATEN BEHIN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA (4.1.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio KORRIKArekari kariatara Ikastolako eta eskola publikoko haurrak Donibane Garazira garraiatzeko denbora ez osoko teknikari laguntzaile lanpostu ez iraunkorra sortzea. Haurren garraioa 2024ko martxoaren 15ean egingen da, ostiralarekin, 10etatik 12:30ak arte.

Enplegua 2024ko martxoaren 15eko egunarentzat sortu da.

Lan denbora 2 oren eta 30 minutukoa da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikulua xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baituten kontratupekoak kontratatzea behin behineko jardura emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 387ko indizea aplikatu da.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik,

Herri Biltzarrak:

- **ERABAKI DU** - 2024 martxoaren 15erako, denbora ez osoko teknikari laguntzaile lanpostu ez iraunkorra sortzea, bi oren eta 30 minutuko iraupeneko,

- enplegu horrek 387ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.

- **BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari eranskinean den lan kontratuaren izenpetzeko.
- **ONARTU DITU**, Auzapezaren proposamen guziak.
- **ZEHAZTU DU**, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 15

Balitzko boz kopurua : 15

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/04/19an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/04/19an.